- **Psikofundazioaren** online bileretan parte hartzea, izan ere, Bizkaiko PEO haren Patro-natuko kidea da. Honako egun hauetan egin ziren: otsailaren 22an, ekainaren 27an eta urriaren 24an.
- **Espainiako Psikologia Kontseilu Nagusiaren Atal eta Lan Arloetako** online bilereta-ra joatea, honako data hauetan:
 - Kirolaren Psikologia Arloa: urriak 23.
 - Berdintasun Arloa: azaroak 20.
 - Gizarte Esku hartze Arloa: azaroak 14.
 - Psikologia Juridikoaren Arloa: uztailak 11 eta azaroak 28.
 - Larrialdien Arloa: azaroak 28.
- **Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa** aldatzen duen Lege Organikoaren Proiektuari Kontseiluak aurkeztutako zuzenketak babestea.
- Espainiako Psikologiaren Kontseilu Nagusiari **lehentasunezko laguntzak** eskatzea. Aurtengo edizioak COVID-19ak eragindako pandemiari lotutako jarduerak ditu ar-datz.

2. Gardentasuna eta Gobernu Ona

- Bizkaiko PEoren **Ahokularitza Batzordea** sortzea: otsailean eratu zen, beharrizanak aztertzeko, prozedura diseinatzeko eta araudia berrikusteko.
- **Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistroarekiko gestioak**, Estatutuetan boto eskuordetua baliatzeko arautegia sartzeko.
- **Kontu korrontea** irekitzea FIARE bankuan, PEO banka kooperatiboaren eta finantza etikoen alde agertzeko.
- **Peritazio txandako** zerrendak berritzea → <https://copbizkaia.org/Colegio/areas.php?ID=32>
- **Azterketa Psikoteknikoko Zentro**etarako zerrendak berritzea → <https://copbizkaia.org/Colegio/areas.php?ID=23>
- Bizkaiko PEoren 2020ko **Ohiko Batzar Nagusia** modu birtualean egitea
 - Grabatzea, emititzea eta txostenak eta estatistikak prestatzea.
 - Bozketa telematikorako probatutako sistema bat ezartzea.
- **Batzorde Iraunkorrak** (hamabostean behin) eta Gobernu Batzordeak (hilean behin edo hil birik behin) modu telematikoan egitea.
- **Gogoeta estrategikoari** buruzko bilerak, Bizkaiko PEO profesionalizatzeko prozesuan aurrera egiten jarraitzen, gobernantza eredu zehazteko eta gerentziari lotutako figura etorkizunean sartzeko.
- **Estatutuak hobetzea:** azaroan Bizkaiko PEoren Estatutuak berrikusteko eta hobetzeko Barruko Lantalueko bat sortu da, PEoren Batzar Nagusian onartuko diren proposamenak egin ahal izateko, horretarako prozedura formalari jarraituz.
- **Osasun larrialdiak** elkargokideen jarduera ekonomikoan **izandako eraginari buruzko galdetegia** → https://copbizkaia.org/actualidad/noticia_des.php?Id_not=439
- Elkargoaren **sei hileko kuotaren kobrantza** uztaitetik irailera atzeratzea: alarma egoera dela eta bizi izan ditugun salbuespenezko baldintzen ondorioz, bigarren epeari dagokion elkargoaren kuota atzeratzea erabaki genuen, uztaitetik urrira, horrela gure elkargokideen egoera ekonomikoa arinduko zelakoan.

3. Gobernu Batzordearen proiektuak plazaratzea

- COVID-19ren ondorioz, eta itxialdi osoan, **PSIKOBIZI programa** sortu genuen, herritarrei gure zerbitzuak eskaintzeko asmoz. Martxoaren 20az gerontik, Bizkaiko Psikolo-

gia Elkargoa lehen laguntza psikologikoez osatutako zerbitzua eskaintzen ibili zaie herritar guztiei, hainbat kanalen bidez (posta elektronikoa, watsap, 900 linea). Ia hilabete pare batez, larrialditan eta krisietan esku hartzean espezializatutako 60 psikologoez osatutako taldea eratu genuen eta 500 eskaera baino gehiagori erantzun genien. → https://copbizkaia.org/actualidad/noticia_des.php?Id_not=454



- Psikobizi txostena egitea, webgunean argitaratzea eta jendaurrean online aurkeztu zen. Psikobizi txostena: → <https://drive.google.com/file/d/1A5vHttZGx4fWsrh2wD3QplkrssMrYS/view?usp=sharing> Psikobizi aurkezpenaren bideoa: → <https://drive.google.com/file/d/1CRMnfDfv4rmCaMb0k9WhxdfVqAL2F14D/view?usp=sharing>
- **COVID 19 baliabideak:** elkargokide eta herritarrentzako gure lanbideareen hainbat es-parruri buruzko infografiak eta zabalkunderako materiala prestatzea. Bizkaiko PEOn baliabideak eta materialak sortu ditugu, elkargoko hainbat batzorde eta lantaldetako lankideek helarazi diguten informaziotik abiatuta. Gure asmoa psikologiako profesionalei eta, oro har, herritarrei informazio erabilgarria eman eta haienkin partekatu ahal izatea zen. Hona hemen agiri horiek jaisteko esteka: → https://copbizkaia.org/Colegio/galeriain_PHP?ID=39
- **Barruko Lantaldeen** (BL) jarduera, Bizkaiko PEOn jarduera ildoak garatzeko: BLak adituekin lan egiteko guneak dira, Gobernu Batzordeak eskariz sortutakoak, jarduera ildoak edo proiektuak garatzeko, Estatutuetan jasotako Batzordeetatik edo Lantaldeetik kanpo. Aurten, honako eremu hauetan lan egin dugu:
 - Bizkaiko PEOn **ikerkuntza sustatzea**: abian dauden zenbait ikerketaren zabalkun-dea webgunearen eta berripaperen bitartez → https://copbizkaia.org/actualidad/noticias.php?Id_subcategoría=9 .Ikerketa arloko prestakuntzako jarduera bat antolatzea.
 - Bizkaiko PEOn **hausnarketa etikoa** sustatzea. Horretarako, etika gaiei buruzko webgune bi egin dira (urriaren 20an eta azaroaren 24an) eta topagunea sortzen gabiltza, gure kideek elkargoaren barruko eztabaida etikoan parte hartu dezaten.
 - Psikologia Juridikoan sakonduz: barruko lantalde bat eratu da, Psikologia Juridikoaren eremuan, dibortzioen edo familia gatazken kasuan **Guraso eta Seme-Alaben arteko Jarkieraren eta Bazterketen Dinamiketan** sakontzeko (2020ko urtarri-la).
 - **Prestakuntzako Barruko Lantaldea.** Prestakuntza arloko kudeaketa ildoei buruzko azterketa eta gogoeta.
 - Elkargokide batek eta Batzordekide batek **Etika eta Covid taldean** parte hartu dute, hausnarketak eta ondorioak biltzen dituen dokumentu bat eginda.
- **Bitartekaritzako profesionalen zerrendan** izena emateko epea abian jartzea. Hainbat erakunde eta elkargo profesionalekin harremanetan egon gara, lankidetzen aritzeko prest gaudela jakinarazteko eta, horrela, psikologoek hainbat lan eremutan daukagun eginkizuna hobetzeko. Azkenik, Bilboko Epaileen Dekanoarekin harremanetan jarri ginen, eta Abokatutzaren Elkargoarekin zerrenda bateratua egitea erabaki genuen.

- Psikologian **euskararen** erabilera sustatzeko ekintzak:
 - **Elkargoak Euskaraz**

BasquePRO Elkargoak ekimenaren bidez garatutako proiektua da, Elkargo Profesionaletan euskararen erabilera sustatzeko, helburu horretarako lagunza publikoak eskuratzeko prozesua ahalik eta ondoen eskuratzeko. Horretarako, interesa erakutsi duten elkar-goentzako lagunza eskaera batera aurkeztu diegu Herri-erakundeei.

Bizkaiko PEOz gain, beste 8 elkargo profesional ere atxiki zaizkio proiektu horri, eta horientzat oinarrizko zerbitzu eta tresna batzuk ezarri dira, baita eskariaren araberako prestazio osagarriak ere.

Elkargoen arteko komunikazioa honako baliabideen bidez egiten da: webgunea → <https://www.iberba.eus/index.php> (erabiltzailearen eta pasahitzaren bidez sartuta); eta **Jakizu berripapera** → https://copbizkaia.org/actualidad/prensa.php?Id_categoria=9.

Elkago profesionalek eta Bilbao Metropoli 30 elkartea koordinatuta egin ditugun jardueren artean, Euskaraldian batera parte hartzea izan da nabarmenena.

- **Laborlan programa:**

Laneratzeko aukera sustatzeko programa, Psikologiako titulazioa duten eta langabeziaren dauden 30 urtetik beherako bizkaitar gazteei zuzendutakoa. Bizkaiko PEOk eta **DEMA** Biziakiko Foru Aldundiko Enplegu eta Ekintzailetza Foru Agentziak bultzatutako programa da.

Programaren helburuak hauek dira: gazteen laneratzeko aukera sustatzea, haien gaitasun profesionalak egungo eta etorkizuneko merkatuaren eskakizunetara egokitzearen bidez; eta erakundeak lehiakorrago bihurtzea, gizabanakoен, taldeen eta erakundeen garatzeko ekimen berritzaileak eskaintzearen bitartez.

Programaren I. fasea azaroan amaitu zen, arrakastaz. 15 gaztek erakundeetarako psikologia osasungarriari buruzko prestakuntza osagarria jaso zuten eta beren lanbide kualifikazioa sendotu zen. Programaren bigarren fasea 2021eko urtarriletik aurrera hasi zen. → https://copbizkaia.org/actualidad/noticia_des.php?Id_not=559

4. Komunikazioa eta marketina


WEBGUNEA

- Lanean jarraitzen dugu gure elkargoaren ikuspegi eta metodologiarekin bat egingo duen diseinu beritu eta modernoko **webgune berria** laster edukitzeko. Webgunearen ezaugarri berriei esker, erabiltzaileekiko elkarreragina, haien nabigazioa eta gailu mugikorretarako egokitzapena hobetuko dira.

- Bizkaiko PEOk, webguneararen bidez, bere kideek aurrez aurre baliatu ditzaketen **zerbitzu berberak** eskaintzen ditu. Horrela, edozein elkargokidek honako zerbitzu hauek eskura ditzake: elkargokide izateko eskaera online egitea; ziurtagiri ofizialak eta beste izapide batzuk; ikastaro eta jardunaldiatarako izen emateak; egindako jardueren eta haien ziurtagirien historia; lan poltsa; eta direktorio profesionala. Halaber, webguna elkargokideentzako informazio interesgarriak etengabe eguneratzeko iturria da.

BERRIPAPERAK ETA ALBISTEAK

- Aurreko urtean 200 albiste inguru argitaratu ziren, aldizkako **60 berripaperen** bitartez helarazita. Berripaperak elkargokideei bidaltzen zaizkie, posta elektronikoz. Egindako jarraipenaren arabera, hartzaileen lortu dugu.
- Gainera, **berariazko berripaperak** egin dira honako alorretan: Prestakuntza Eskaintza eta Lan Eskaintzak; Deialdiak; eta Elkargokide berrientzako ongietoriak; eta Gobernu Batzordearen komunikatuak. Aldi horretan, koronabirusa dela eta bizi izan dugun salbuespenezko egoerari lotutako berripaper bereziak plazaratu ditugu.




ALDIZKARIA

- Bizkaiko PEOk **Psikologiaz** aldizkari digitala egiteari eutsi dio. Aldizkari horretan gaurkotasuneko gaiak jorratzen dira eta elkargokideei hitza ematen zaie artikulu eta monografikoen bidez.
- Hobekuntza prozesuan, aldizkariaren diseinua egokitzeaz gain, itxura gaurkotuagoa emango zaio, gure elkargoaren logo eta marka berria txertatuta, 2021etik aurrera, eta sei hilean behin argitaratuko da.
 - Otsaila. 51. zk. → <https://es.calameo.com/read/0047838692c581283d979>
 - Ekaina. 52. zk. → https://copbizkaia.org/gestor_nuevo/uploads/boletines/Psikologiaz+N52.Jun2020.pdf

ELKARGOA KOMUNIKABIDEETAN AGERTZEA

- Aurten, etenik gabe agertu gara komunikabideetan. Guztira **53 agerraldi** di egin dira hedabideetan (prentsa, irratia, telebista eta beste batzuk).
- Argitalpenak webguneararen (Albisteak-prentsa aretoa → <https://cop>-



bizkaia.org/actualidad/prensa.php) eta sare sozialen (Facebook, Twitter eta Linkedin) bidez zabaldu ditugu. Duela gutxi doako kontua ireki da Ivoox orrian, podcast-a sortzeko eta hitz egin dutenen audioak biltzeko.

- Jarraian, komunikabideetan lortutako oihartzuna zehatzago azaltzen da: → https://drive.google.com/file/d/1U0bSP3HU_JdcFYd8YWlanSNX0bxlljJK/view?usp=sharing

KOMUNIKABIDEEKIKO HARREMANA

- **Herri Irratia.** Hamabostean behin, asteazken goizetan, psikologoek gaurkotasuneko gaiei buruz hitz egiteko lekua izaten du Bizkaiko Herri Irratiak, kolegiatu batek koordinatuta.
- **Deia.** Akordioa Deiarekin, egunkariak hilero argitaratzen duen Osasunari buruzko gehigarriari edukiak emateko.
- **Radio Euskadi.** Radio Euskadikoren zuzendaritzarekin biltzea, haren ekimenez, lan mahai bateratu bat osatzeko, irratiko programetan psikologiarri eta egoera desberdinan (profesionalak, egunerokoak, etab.) egiten duten ekarpenari buruzko eduki eta gune espezifikoak sortzeko.

SARE SOZIALAK

- Aurten, etengabeko jarduera izan dugu sare sozialetan: astean 2-3 argitalpen, batez beste. Guztiek eduki propioa dute, Elkargoaren edo elkar-gokideen jarduerari buruzkoa.
- Facebook → www.facebook.com/colegioOficialdePsicologiadeBizkaia; 14.400 “Atsegin dut” lortuta eta 14.700 lagun baino gehiago atzetik.
- Twitter → <https://geuk/COPBizkaia>. Jarraitzaileak: 4.515 batez beste, hilean txioen 8.000 ikustaldi. Profilera egindako bisiten batez bestekoa: 100 (azaroan 450 bisita baino gehiago).
- Linkedin 2020ko lehen seihibekoan Elkargoaren orria jartzen dugu martxan → <https://www.linkedin.com/company/colegio oficial de psicolog%C3%ADA de bizkaia/> 280 jarraitzaile ditu eta batez beste 200 impresio argitalpen bakoitzeko. Eduki propioa duten 50 argitalpen baino gehiago.



EKINTZA BEREZIAK

PRAKTIKA PSIKOLOGIKOKO ESKOLA

Praktika Psikologikoko Eskolak **25 urte bete** ditu, eta, ospakizun eta sustapenerako ekitaldi bat planifikatuta izan arren, osasun segurtasuneko murriketek ekintza komunika-

tibo batera mugatzena behartu gintuzten.

Inguruabarrok gorabehera, eskolari garrantzia eta presentzia ematen saiatu gara, efeme-ridea aprobetxatzuz, eta hurrengo promozioarekin jarraitzen dugu.

Horretarako, honako ekintza hauek egin ditugu:


- 25 urte hauetan Eskolak izan dituen bilakaera nagusiak nabarmenduko dituen artikulu bat idaztea.
- Elkargokideentzako barruko albiste bat egitea.
- EuropaPress eta EFE agentziek prentsa ohar bat egitea eta bidaltzea.
- Albistea ANIS (Osasunari buruzko Informatzaileen Spainiako Elkarte) atari es-pezializatuan argitaratzea.
- Albistea enpresa edukia duen El Mundo Empresarial egunkari digitalean argitaratzea: <http://elmundoempresarial.info/2020/11/19/escuela de practica psicologica 25 anosformando a psicologos as/formacion/>
- Berria Elkargoaren sare sozialetan argitaratzea eta lehen aipatutako komunikabi-deetako Sareetan egindako argitalpenak berriz zabaltzea.

5. Batzorde Deontologikoa



- Aitor Mauriz elkargokidea Batzorde deontologikoan sartzea Tirso Fernandezek utzi-tako kargua betetzeko.
- Batzorde deontologikoaren **prozedurak hobetzeko** lan egin dugu: espedienteen bi-dalketan kodetzea, erregistroa, artxibatzea eta enkriptatzea, Batzordeak soilik erabiltzen duen posta elektronikoaren sistema bateratua sortzearekin batera. Neurri horiek aukera ematen dute Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (aurrerantzean, DBEO) hobeto betetzeko.
- Batzorde deontologikoaren barne araudia sortzea, urriaren 24ko ezohiko batzarrean onartua. → <https://copbizkaia.org/Colegio/ReglamentoRegimenInternoCom. Deontologica.pdf>
- Batzorde horren eginkizun nagusia psikologoaren kode deontologikoa betetzen dela zaintzea da, bai eta dagozkion ebazpenak izapidezeta eta Gobernu Batzordeari helaraztea ere. Kode deontologikoa Elkargoaren webgunean dago eskuragarri: <https://copbizkaia.org/Colegio/CodigoDeontologicoCOPBizkaia.pdf>. Garrantzitsua da psikologoek Kode Deontologikoa ezagutzea.
- Urtarriletik abendura bitartean 18 Espediente jaso dira. Horietatik 10 aztertzen ari dira, 1 amaituta eta 2 informazio eginbideekin.
- Egindako jarduerari dagokionez, batzorde deontologikoa 9 aldiz bildu da guztira 2020ko uztailetik abendura arte. Elkargoak seihibeko honetan jaso zituen 14 salaketa deontologikoetatik, 6 ezestea erabaki zen, eta beste 8ri dagokienez, informazio eginbideak ireki dira. Kasu batek irekita jarraitzen du, aztertu zain.

6. Prestakuntza eta ikaskuntza proiektuak

- Urtea elkargokideen prestakuntza beharrak eta iradokizunak jasotzen eta gauzatu beharreko prestakuntza jarduerak planifikatzen hasi zen. Pandemiaren ondorioz, prestakuntza jarduera geldiarazi behar izan genuen eta, ondoren, eskaini beharreko prestakuntza eta haren formatua baloratu genuen. Jardueren egutegia berrantolatu ondoren, online modalitatea (zoom) txertatu genuen, salbuespenezko egoerari jarraipena emateko.
- Guztira, **968 lagun** joan ziren Bizkaiko PEOk antolatutako prestakuntza jardueretara. Zehazki, 205 lagun ikastaroetara eta 763, ostera, jardunaldietara. Ondorengo grafikoeitan kostu/doakotasunari eta irakasteko modalitateari buruzko informazioa zehazten da.



* Eskola Praktika Psikologiak barne. 162 ordu + praktikak



- Hona hemen 2020an eskaini ziren jarduerak: → <https://drive.google.com/file/d/1MWLMEL7RNc5HEAHyFgp9OA83JYG6ll3r/view?usp=sharing>
- Hobetuz** erakundeari prestakuntza arloko laguntzak eskatzea. Prestakuntza jardueren hautaketa eta izapideztea.
- EHUren Udako Ikastaroak Fundazioari** Udako Ikastaroetarako proposamenak eskatzea, 2021ean gauzatzeko.
- Kontingentzia planean** ezarritako neurriak abian jartzea, aurrez aurreko formatuan, online edo mistoan, hala dagokionean.
- Praktika Psikologikoko Eskolaren 25. promozioa** amaitzea, gogobetetze maila handiarekin eta eskolak online modalitatera egokituta, COVID-19ren ondorioz. Praktike-tako hitzarmenak urteko azken hiruhilekora arte luzatzea erabaki da, eta orain arte

30 hitzarmen inguru sinatu ditugu.

- "Psikologia Klinikoa" arloko **Praktika Psikologikoko Eskolaren 26. promozioa** abian jartzea:
 - Spainiako Psikologiaren Kontseilu Nagusiak prestakuntza horren akreditazioa onartzea
 - Eskolak aurrez aurre, online edo modu mistoan egin ziren, pandemiak eragindako premien eta murrizketen arabera.
 - Ikastetxeetan praktikak egitea
- Bizkaiko **praktiketako ikasleak** hainbat erakundetan sartzeko prospexioa eta eskaera. Pandemiaren ondorioz eta segurtasun neurriak bermatzeko, atzeratu egin da.
- **Ezagutzaren hedapena:** Covid 19ren eragin psikologikoari buruzko ikerketa ekimenean izandako parte hartza zabaltzen eta sustatzen laguntzea. → https://copbizkaia.org/actualidad/noticias.php?Id_subcategoría=9
- Akordioa **Jaume I Unibertsitatearekin**, 72 orduko honako prestakuntza eskaintzaren bidez gazteak gitzeko: Erakundearen Psikologia Positiboa: Erakunde Osasungarri eta Erresilienteak.

7. Komisioak eta Partaidetza

- 2.539 elkargokideen artean 211 pertsona daude batzorde edo lantalderen batean modu aktiboan parte hartzen.
- Batzordeen eta lantaldeen (Berdintasuna, Psikologia Juridikoa, Psikoontologia, Kirola, etab.) **lan esparruei** buruzko Spainiako topaguneetara joatea, beste PEO batzuekin sarean lan egitea sustatzeko.
- **Parte hartze Kontseiluaren bilera** (otsailaren 18an). PEOREn batzorde eta lantalde aktiboen artean lotura handiagoa egon dadin sustatu nahi dugu parte hartzeko gune hau.
- Bizkaiko PEOk Elkargo **Profesionalen Mahainguru** batean parte hartza, Deustuko Unibertsitatearen **Osasuna Humanizatzeko** Aditu Ikastaroaren esparruan (urriaren 16an).
- **Psikologia Positiboaren Kongresuaren** Batzorde Antolatzailearekin bilerak egitea, hasiera batean 2020an Bilbon egiteko aurreikusita zegoena. Osasun larrialdia dela eta, geroratu zen.
- Gizarte Esku hartzearen Psikologia Batzordearen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Hezitzileen Elkargoarekin eta Bizkaiko Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialarekin batera parte hartza, **diziplina askotariko esku hartza** sustatzeko laneko

mahai bateratua sortzeko.

- **Hezkuntza Psikologiaren** Batzordeak jarduera fisikoaren eta kirolaren esparruan alderdi psikologikoa lantzearen garrantziari buruzko Kirol Psikologiako Batzordean parte hartu zuen, EHUREn jardunaldi baten barruan, Euskadiko gainerako Psikologia Elkargoekin batera.
- Hezkuntzako Psikologian espezialista izateko akreditazioari buruzko informazio bileria.
- EAEko hiru Psikologia Elkargo Ofizialetako **Gizarte Esku hartzearen Psikologiako** ordezkarien arteko topaketa, hiru lurralte historikoen arteko ekintzak koordinatzeko.
- **Urduñako Adingabeen Zentroan** esku hartzea, lankidetza hitzarmenaren pean BFAren GIPEC (Larrialdietako eta Hondamendietako Esku hartze Psikologikoko Taldea) antolatzearen ondorioz.
- **GIPEC taldea** berregituratzea. Barne araudia egiteko prozesua, ofiziozko txandaren funtzionamendupean.
- **Basquepro**: azken hilabeteetan Garapen Jasangarriko Helburuak (GIH) landu dira batz ere. Azpimarratzeko da Eusko Jaurlaritzaren ekimena, hainbat eragilek, besteak beste, elkargo profesionalek parte hartzearen bidez prestatzeari dagokionez. Guztion artean, iradokizunak eta praktika onen adibideak eman dizkiogu Eusko Jaurlaritzak egindako proposamenari.

8. Barne antolaketa eta kudeaketaren hobekuntza

- **Datu basea**: Elkargoaren datu erabilgarrien analisia eta eremuak eguneratzen hastea. Zerbitzu pertsonalizatuak eskaintzeko profilak eta eskariak aztertzea.
- Giza baliabideen berrantolaketa (funtzioak eta zereginak) Bizkaiko PEOREn **komunikazio eta digitalizazio** zereginak indartzeko.
- Bizkaiko PEOREn **gerentea** hautatzeko prozesuaren deialdia. → https://copbizkaia.org/actualidad/noticia_des.php?Id_not=464. Bilerak Campo eta Ochandiano aholkularitzarekin hautagaitzak berrikusteko, elkarrizketak irailean eta abenduan, prozesua oraindik dago abian.
- Osasun krisialdiaren ondorioz araudi juridiko eta fiskalean izandako berritasunei dagokienez, elkargokideei unean uneko **laguntza eta aholkularitza** ematea.
- Bizkaiko PEO hobetzeko eta **digitalizatzeko** prozesua (webgune berria, berripaperak, Sare Sozialak, etab.)
- Komunikazio politika aldatzea, informazio eguneratua duten asteroko **berripaperak**

egitea.

- Bizkaiko PEOREN langileei **prestakuntza** ematea hainbat gai digitali buruz.
- Pandemiaren ondorioz lan arriskuen empresa hornitzaleak egindako **kontingentzia plana** egitea eta abian jartzea.

9. Hornitzaleak eta ekipamenduaren hobekuntza

- Elkargoko **aholkulari juridikoarekin** daukagun kontratu harremana amaitu da erre-tiratu delako. Haren ordezkoa hautatzeko, 3 eskaintza aztertu ondoren, Gordoniz Abogados bulegoa kontratatu da.
- **Energia aurreztea:** eraginkortasun energetiko handiko beirak dituzten leihor zuzen berriak instalatzea bulegoetan eta geletan, hornitzairen 3 eskaintza aztertu ondoren.
- PEOREN egoitzaren **atariko irisgarritasunerako** obrak amaitzea, mugikortasun urriko pertsonei sarbidea ahalbidetuta.
- Ikastaroak eta mintegiak online egiteko oinarrizko **ekipamendua hobetza** (zoom lizentziak, web kamera eta mikrofonoa).
- Lankidetza hitzarmenak sinatzea Bizkaian material psikologikoaren hornitzaire diren **Psikolan eta Albor** zerbitzuekin, material horien erabilera egokia sustatzeko eta gure elkargokideei onurak eskaintzeko.
- Bizkaiko PEOREN ikasgelen **egokitzapen digitalerako** hornitzaleek egindako proposamenak aztertzea.
- **Telepsikologia:** merkatuan telepsikologian jarduteko dauden plataforma teknologikoen prospekzioa eta analisia. Azkenik, Psikologia Kontseilu Nagusiak plataforma batera doan sartzeko aukera eskaintzen du, PEO guztientzat. → <https://www.cop.es/telepsicologia/>
- **Segurtasun informatikoa** handitzea: Segurtasun informatikoa handitzeko prozesua (Psikobizi programako 65 profesionalen prestakuntza, prozedura eta dokumentazioa).
- **ZoomPro lizentzia** eskuratzea. Plataforma horrek prestakuntzara, bileretara, jardunaldi telematikoetara eta abarretara bideratutako jarduera telematikoak egiteko aukera ematen du. Bizkaiko PEOREN batzordeek eta lantaldeek erabili dezaten prestatzea.
- Osasun jarduera eta lan arriskuen prebentzioa arautzen duen araudiari buruz elkar-gokideei **lege aholkularitzako** zerbitzua eskaintzea: Bizkaiko PEOTIK, gure aholkulari juridikoaren zerbitzuaz baliatuta, aldizka eta behar den guztieta eman dugu, ohiko komunikabideen bidez administrazioek argitaratu dituzten lege berrikuntza guztienei.

laburpena, gure elkargokideei informazioa modu zehatzagoan eta argiagoan aurkeztu ahal izateko.



10. Kanpo harremanak eta erakunde ordezkaritza

- Bizkaiko PEotik iradokizunak bidali genituen **Neurri Prozesal, Teknologiko eta Gatazkak Konpontzeko Bitartekoei buruzko Lege aurreproiektuaren** jendaurrean jartzeko prozesuan, bitartekaritzaren arloko psikologoaren figura babesteko asmoz (2020ko ekaina).
- Euskadiko hiru PEOok abenduaren 1ean Lehendakaritzako Ministerioari bidalitako **BEP plaza gehiagoren eskaerari** laguntzeko xedez Kontseiluaren idazkia batera zabaltzea. Idazkia honako arduradun hauei bidali genien: Carmen Calvo Poyato andrea (Espainiako Gobernuaren lehen mailako presidenteordea); Denis Itxaso jauna (Espainiako Gobernuaren Ordezkaria); eta Gotzone Sagardui andrea (Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailburua). → https://copbizkaia.org/actualidad/noticia_des.php?Id_not=552
- **Administrazioarekiko elkarritzeta indartzea**, lankidetzarako esparruak identifikatzeko eta alderdi horretan gure ahalmena handitzeko.
- Bilera **Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Inkusio** arloko zuzendariarekin, elkar aurkeztu eta ezagutzeko, lankidetzarako aukerak aztertzearekin batera (uztailaren 1a).
- Bilera **Arartekoaren** Haur eta Nerabeen Bulegoko teknikariarekin (irailaren 2an).
- Bilera Bizkaiko Foru Aldundiaren **Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun** Sailarekin (abenduaren 2a).
- Bizkaiko Foru Aldundiak 2020ko abuztutik sortutako **Covid Aldiko Aholku Kontseiluaren** hileroko bileretan parte hartzea.
- Eusko Jaurlaritzaren **Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza**. Sa-reko lankidetza koordinatzea, beharrizanak eta etorkizuneko lankidetzak identifikatzearkin batera. Bizkaiko PEoren izendapenaren jakinarazpena, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren merezimendu zibila aitortzeko, itxialdian PsikoBizi zerbitzuak egindako zerbitzuaren ekarpenagatik.
- Lankidetza teknikoak beste erakunde batzuekin:
 - **Novia Salcedo** fundazioarekin bilera eta proiektua zabaltzeko lankidetza.
 - **AECGren** lokal berriaren inauguraziora joatea
 - Psikologia Zientzia Astean agertzea. Santurtziko **Zuntzunegi Institutuko** kide batzen hitzaldia, Psikologia Zientzia dela DBHko eta Batxilergoko ikasleei jakinarazteko. Otsailak 21.


- Bizkaiko PEOk **AVIFESen** proiektuan parte hartzea, DEPRESIOAri behar bezala helteko eta erantzuteko tresnak eta irtenbideak ikertu eta sortzeko, adituekin diziplina askotariko elkarritzetan egitearen testuinguruan (azaroak 11).
 - Bilboko **Merkataritza Ganberarekin** lankidetzen aritzea Enpresen Kudeaketa eta Marketina Graduko ikasleen jarduera praktikoan (azaroak 14).
 - **Lagungo.** Zerbitzua amaitu ondoren PsikoBizi zerbitzuan jasotako eskaerak bideratzeko koordinazioa.
 - **Aidatu.** Herritarren artean arrisku autolitikoaren abisuak areagotzeagatik suizidioa prebenitzeko aholkularitza eskaera.
 - **Udalak.** Bizkaiko udalerrietako hainbat udal gurekin harremanetan jarri dira, eta aholkularitza eskatu dute Covid 19 pandemiaren kudeaketa psikologikoari buruz, bai eta larrialditan arreta psikologikoa emateko eta krisialditan esku hartzeko eskura dauden baliabideei buruz ere, kaltetutako biztanleria orokorrarekin, biztanle ahulekin eta higadura emozionalak edo estres akutuak eragindako asistentzia arloko langileekin.
- Sareko lana beste elkargo profesional batzuekin:
- Bizkaiko PEOREn ordezkaria Eusko Jaurlaritzaren **Familia Bitartekaritzako Aholku Batzordea** joatea (2020ko abenduaren 1a): (Arabako PEOko) Monica Lopez Quintana andearen dimisioaren ondorioz, (Bizkaiko PEOko) Elena Fernandez Markaia Aholku Batzorde horretan gure **ordezkari** berri bilakatu da.
 - **Bizkaiko Osasun Elkargo Profesionalen Foroaren** bileretan parte hartzea. Osasun Sailerako beste osasun elkargo profesional batzuekin batera alarma egoerari buruz egindako komunikazioa. → https://copbizkaia.org/actualidad/noticia_des.php?Id_not=482
 - **BasquePro Elkargoak** ekimenean modu aktiboan parte hartzea honako lantaldeetan: Garapen Jasangarriko Helburuak; ekintzailetzaren eta inbertsio kulturaren finantzaketa; euskara arloko diru laguntzak; eta abar.
 - Bilerak **Arabako eta Gipuzkoako PEOekin**: larrialdietako arreta psikologikoaren arloko koordinazio eta lankidetza bilerak.
- Lankidetzak:
- **Bilboko Zientzia Medikoen Akademia.** Gaceta Médica aldizkariaren COVID 19ri buruzko monografikoan parte hartzea, "Una mirada desde la Psicología" artikuluarerin
 - **Médicos del Mundo-Euskadi.** Facebook Liven honako izenburuko hitzaldian parte hartzea: "Lehen Laguntza Psikologikoak. PsikoBizi "
 - **Doble Sonrisa Fundazioa.** Agirre Lehendakaria Zentroa. Eusko Jaurlaritzarako txosten bat egiteko proiektuan laguntzea, COVID 19ri erantzuteko Euskal Autonomia Erkidegoan abian jarri diren zaintza sareen mapan kokatzearekin batera.
 - **Bizkaiko Abokatuen Elkargoarekin** Bitartekaritzako profesionalen zerrenda bateratua ezartzea erabaki da.

11. Elkargoaren jarduera

- **ELKARGOKIDEAK:** 2.539
- Abenduaren 31n 2.539 elkargokide zeuden Bizkaiko PEOn eta aurten 210 elkargokide berri egin dira. Goranzko joera da azken urteetakoarekin alderatuta. Gero eta gehiago dira online jasotzen diren eskaerak <https://copbizkaia.org/ventanilla/colegiacion.php> webguneko online elkargokide egiteko inprimakitik.



- Aurten, Elkargoak, sei hilean behin-go ohiko kuotaz gain, hobari berriak ezarri ditu. → https://copbizkaia.org/actualidad/noticia_des.php?Id_not=550



ELKARGOKIDEARENTZAKO ZERBITZUAK:

Informazio eta Arreta Psikologiko eta Juridikorako Zerbitzua (SIAP): elkargokideen 111 konsulta jaso dira; horietatik 82 juridikoak izan dira, 25 teknikoak eta 4 psikologiarri lotutakoak, oro har.

Lan eta lege arloko aholkularitza: elkargokideengandik lan arloko 7 konsulta eta zerga arloko 18, zerga aholkularitzarekin egindako lankidetza hitzarmenaren bidez.

Aholkularitza juridikoa: Informazio eta Arreta Psikologiko eta Juridikoko Zerbitzutik (SIAP) Rafa Armestori elkargokideen 4 konsulta bideratu zaizkio.

Pazientearentzako Segurtasuna: Se han realizado 60 admisiones al Comité de Seguridad al paciente del COP durante el año 2020, han sido todas admitidas tras elaborar una de-

claración jurada para poder incluir en la solicitud a aquellos centros que tienen más de cinco personas y ninguna tiene la formación relacionada con la Seguridad al Paciente.

Lan eskaintzak: 59 jaso dira. Abenduaren 31rako, 25 kontratazio, 17 inor kontratatu barik, 9 hautaketa egiten dabilta, eta 1 zabaldu egin da, baina ez da PEOren bidez kudeatutu. 7 eskaintza indarrean daude.

Enplegu eskaintzak egunero eguneratzen dira webguneko atalean eta, gainera, Leihatila Bakarra/Nire jarduerak atalaren bidez izena emanda zauden eskaintzak ikusi ditzakezu. Atal pribatuak direnez, log egin/zure burua

